

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONTSEILU ERREKTOREAK 2023ko EKAINAREN 5ean EGINDAKO BILKURAREN AKTA

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (aurrerantzean eLankidetzta) eta 2023ko ekainaren 5eko 12:00etan, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, eta honako kide hauek bertaratu dira:

- Jose Antonio Rodriguez Ranz jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzarako sailburuordea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (aurrerantzean, eLankidetzta) eta haren Kontseilu Errektoreko presidente Nerea Melgosa Vega andrearen ordezkaria. Bertaratu.
- Kontseilukidea: Asier Aranbarri Urzelai jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakariaren ordezkaria. Bertaratu.
- Kontseilukidea: Mikel Hidalgo Bordegarai jauna, Gizarte Berrikuntzako aholkularia. Bertaratu.
- Kontseilukidea: Fernando Iturriaga Ancín jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkaria. Bertaratze telematikoa.
- Kontseilukidea: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria. Bertaratu.
- Kontseilukidea: Martín Iriberrí jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkaria. Bertaratu.
- Kontseilukidea: Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, Giza Eskubide, berdintasun eta Justizia Batzordeko burua. Bertaratu.
- Kontseilukidea: Oihana Etxebarrieta Legran andrea, Giza Eskubide, berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea. Bertaratu.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria. Bertaratu.

Era berean, guk gonbidatuta eta gai-zerrendan bildutako gaiak aurkezteko laguntza teknikoa emateko xedez, bertaratu dira Cristina Ocio, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko auditorea; Izaskun Astondoa, Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna; eta Ana Rojo, Zerbitzu Juridikoaren arduraduna, Kontseilu Errektorearen bilkura honi euskarri teknikoa emateko.

Sarrera

Jose Antonio Rodríguez Ranzek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria emateko, eta bilkurari hasiera eman dio, honako gai-zerrenda honekin:

1. *2023ko apirilaren 3an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea.*
2. *2022ko Urteko Kontuak onartzea.*
3. *2023ko hitzarmenen eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.*
4. *Galde-eskeak*

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2023ko apirilaren 3ko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

2. 2022ko Urteko Kontuak onartzea.

eLankidetzaren Urteko Kontuak aurkeztu dira, onar daitezten. Cristina Ocio auditoreak azaldu ditu 2022ko gertaera garrantzitsuenak.

Eusko Jaurlaritzak 2019an atxiki zion Agentziari okupatzen duen eraikina. Une hartan, zenbateko osoa "Eraikuntzak" kontuan kontabilizatu zen zegokion idazpenean. 2022an atxikipenak egin zaizkie (zuzenbide pribatuko beste erakunde publiko batzuei), eta agerian geratu da partidetan "Lursailak" eta "Eraikuntzak" bereizteko beharra.

Lehenik eta behin, Kontabilitate Plan Orokorrean hala zehazten delako, dagokion arauan: beti egon behar du lursailen atalak. Bigarrenik, Kontabilitate eta Kontu Auditoretza institutuak (ICAC), kontabilitate-kontuak arautzen dituen erakundeak, argitaratu duen kontsulta batengatik, esaten baitu eraikin baten lagapen mugagabea eginez gero, lursail batek egon behar duela. Eta, azkenik, Kontabilitate, Ondare eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren auditoretza-zerbitzuak ondorioztatu duelako bereiz kontabilizatu beharko litzatekeela lursailaren balioa.

Orduan, traspasoa egin zen, atxiki zen unean tasatzaileak egindako balorazioaren banakapenaren arabera, eta 761.000 € pasa ziren lursailera. Era berean, erabaki zen 2021eko kontuak ez aldatzea. Kontu horietan, 15.219 euroko gainamortizazioa egongo litzateke, garrantzi txikikotzat jo dena.

Horrek dagokion idazpena eraman beharko luke Urteko Kontuetan, baina ez darama, memorian bi partidak erantsita ageri direlako.

Bertaratutako guztiek azalpena baietsi ondoren, Urteko Kontuak azaltzen jarraitu du Cristina Ociok.

2019an, eraikina atxiki zenean, Eusko Jaurlaritzak kapital-dirulaguntza eman zuen eraikinean obrak egiteko; 2022ko urtarrilaren 1ean 175.337 €-ko gerakina zuen. Ez da ondarearen parte, zorra baizik. Inbertsioak egin ahala, zenbateko hori dirulaguntzatik kapitalera igaroko da. Aurten 51.892 € izan dira.

Argitu duen beste puntu bat Agentziak urtero Eusko Jaurlaritzari itzuli behar dizkion soberako kopuruak dira. 2021eko zenbatekoa (1.810.704 €) osorik itzuli da. 2022ko zenbatekoa (1.418.912 €) 2023ko ekitaldian konpentsatuko da. Zenbateko hori ustiapeneko dirulaguntzaren 760.000 €-ko soberakinetik dator, eta gainerakoa, onuradunen uko egiteetatik edo ez-betetzeetatik.

Aldizkakotutako diru-sarrerei dagokienez, Agentziak Eusko Jaurlaritzatik jasotzen dituen zenbatekoak dira, eta horien dirulaguntza/ordainketa ezin izan da gauzatu. Balantzean jasota daude, "Diru-sarrera aurreratuak" kontuan. Cristina Ociok azpimarratu du kopuru horrek Ora jo behar duela.

Eta, azkenik, 2021ean, Eusko Jaurlaritzaren cash pooling sisteman sartu zen Agentzia, eta sistema horren arabera, sozietate guztiek Eusko Jaurlaritzaren esku utzi dute beren diruzaintza. Datu hori balantzean ageri da, "Bestelako aktibo likido baliokideak" kontuan, eta altxortegia ez den arren, berehalakotasunagatik eta zenbatekoaren erabilgarritasunagatik, hor jarri da.

Iosu Urrutiak galdera bat egin du finantza-aktiboetarako buruz, zehazki maileguagatik zer interes-tasa jartzen zaion Eusko Jaurlaritzari. Cristina Ociok erantzun du 2022an % 0koa

izan dela, baina ez duela 2023ko ekitaldirako datua ezagutzen. Fernando Iturriagari galdetu zaio, eta hark ere ez daki.

Beste galdera bat ere egin du losu Urrutiak, berdintasunaren legearekin loturik oraingoan, Euskal Kontseiluan eta Kontseilu Errektorean gutxienez 3 emakume egoteari buruz, eta martxan jartzen denean eraginik izango duen galdetu du. Ana Rojok, Zerbitzu Juridikoko arduradunak, baldintza hori dagoeneko betetzen dela erantzun du.

Azalpen horren ondoren, Cristina Ociok amaitutzat eman du Memoriari eta urteko kontuei buruzko azalpena.

Izaskun Astondoak esan du deialdiarekin batera bidalitako dokumentuak ez zirela behin betikoak, eta azken kontuen kopia emango zaiela, aldaketa txikiekin.

Beste galderarik ez dagoenez, bozketa egin da eta onartutzat eman dira Urteko Kontuak.

3. 2023ko hitzarmenen eta zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.

Paul Ortegak hartu du hitza zuzeneko dirulaguntzen 4 proposamenak eta hitzarmen-proposamen bat aurkezteko.

Lehenik eta behin, azaldu du zuzeneko dirulaguntza eman zaiela Gernika Gogoratz Bakearen aldeko Ikerketarako Elkarteari eta Ayuda en Acción fundazioari, lotura hirukoitzeko proiektu bat aurrera eramateko, ekintza humanitarioa garapenaren sustapenarekin eta bakearen eraikuntzarekin lotzeko, Delgado lurmuturrean (Mozambique) tokiko agenda sendotuz.

Ekimen pilotua da, Delgado lurmuturrean (Mozambiken) eta Euskadin egingo dena, Gernika Gogoratz eta Ayuda en Acción erakundeen eskutik.

Azaldu duenez, proposamen horren bidez, garapenaren sustapenarekin eta bakearen eraikuntzarekin lotu nahi da ekintza humanitarioa (lotura hirukoitza), gero eta konplexuagoak eta kronifikatuagoak diren krisi humanitarioei erantzun hobek eman ahal izateko.

Bigarrenik, adierazi du honako hauei zuzeneko dirulaguntza ematea proposatu dela: Cauca Iparraldeko Kabildo Indigenen Elkarteari (ACIN), Cauca Iparraldeko Kontseilu Komunitarioen Elkarteari (ACONC), Cauca Iparraldeko Erabiltzaile Nekazarien Elkarte Nazionalari (ANUC-Cauca Iparraldea), Río Cauca Palenke Korporazioari –komunitate beltzen prozesuaren ordezkari gisa-Palenke Goi Cauca (PCN-Goi Cauca)– eta Cauca departamentuko Miranda udalerriko Nekazari Erreserbako eremua eratzearen aldeko Elkarteari –Cauca iparraldeko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Federazio Sindikal Bateratuaren ordezkari gisa– (Fensuagro-Cauca Iparraldea), Cauca Iparraldeko Etniarteko eta Kulturarteko Lurralde Kontseilua (CITIINC) sendotzeko eta finkatzeko, lurraldean bakea bultzatzeko.

Kontua da Kolonbiako Mahaia Cauca Iparraldean lehenetsi zuen baterako ekimenarekin jarraitzea Cauca Iparraldeko Etniarteko eta Kulturarteko Lurralde Kontseiluaren gaitasunak indartzeko, eta, hala, Kolonbiako testuinguruan bakea lortzen laguntzeko.

Gogora ekarri du Eusko Jaurlaritzaren zenbait instantziaren eta eragile sozial eta instituzionalen arteko koordinaziorako eta artikulaziorako gunea dela Kolonbiarekin Elkarlanean aritzeko Euskal Mahaia, herrialde horretan bakea eraikitzeko balio erantsia sortu ahal izateko. Kolonbiako Mahaiko euskal ordezkariak 2022aren amaieran parte hartu zuen identifikazio-lanen emaitza da onartzeko aurkeztu den dirulaguntza hori.

Ana Rojok amaitu du proposamen honen azalpena, ordainketa-sistema zein izango den zehaztuta.

Hirugarrenik, Caliko Pontificia Universidad Javeriana unibertsitateari zuzeneko dirulaguntza emateko proposamena aurkeztu du Paul Ortegak, elkarrizketa sozialaren bidez lurralde-bakea eraikitzeko eta egia argitzeko batzordearen gomendioak ezartzeko, adiskidetzaren ikuspegitik.

Asmoa da Caliko (Kolonbia) Pontificia Universidad Javeriana unibertsitateko Kulturarteko Ikasketen Institutuari laguntzen jarraitzea.

Adierazi duenez, lurraldean bakea eraikitzen ere lagundu nahi du ekimen horrek, nazio-mailan eta lurralde-mailan oinarritzko bizikidetzaren itunak bultzatuz. Era berean, gizarte-erakundeek Egiaren Batzordearen txostenaren ondorioak beren egiteko osagaia ere badu.

Azkenik, Lurbide-El Camino de la Tierra elkarteari zuzeneko dirulaguntza emateko proposamena azaldu du, elikadura-subiranotasunaren aldeko Nyéléni II. Foro Globalerako eskualde-prozesua bultzatzeko (India, 2025).

Dirulaguntza horren bidez, Paul Ortegak adierazi duenez, foroaren bigarren edizio honetan landu beharreko gaiak definitzeko beharrezkoak diren eskualde-prozesuak bultzatu nahi dira, ekitaldi horretarako ibilbide-orria ezarri, eta tokiko eta eskualdeko erakundeen parte-hartzea sustatu.

Zuzeneko dirulaguntzen proposamenak aurkeztu ondoren, euskal irrati-telebista erakunde publikoaren (EITB) eta eLankidetzaren – Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren arteko lankidetzaren hitzarmena aurkeztu du idazkariak, Kontseilu Errektoreak onar dezan. Hitzarmen horren helburua da komunikazio- eta sentsibilizazio-jarduerak elkarrekin bultzatzea garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko lankidetzaren arloan.

Onartutako 2023ko aurrekontuetan eta funts banagarrietan dagoeneko onartua zegoen eLankidetzak 150.000 euroko ekarpena egitea EITBri.

Azalpena amaitzeko, Paul Ortegak argibideak eman ditu 2022an onartu zen, baina 2023an gauzatuko den hitzarmen bati buruz.

Adierazi duenez, El Salvadorren genero-berdintasunerako eta emakumeak ahalduz Nazio Batuen erakundeari (NBE Emakumeak) emandako zuzeneko dirulaguntza da, "Emakumeak, parte-hartze politikoa eta boterea. Udal-eremuan funtsezko berdintasunerako ibilbidea eraikitzen El Salvadorren" proiektua aurrera eramateko. Proiektu hori 2022ko urriaren 17an onartu zuen Kontseilu Errektore honek. Kanpo Arazoetako Ministerioarekin izandako izapidetze-arazoengatik, ez zen astirik izan 2022an gobernu-kontseiluan onartzeko.

Horregatik, Kontseilu Errektorean onartua zegoen arren, 2023an gauzatuko da. Eta gogora ekarri du 150.000 €-ko ekimena dela bi urtean. Horregatik eman da azalpen hau.

Oihana Etxebarrietak positibotzat jo du EITBrekiko hitzarmena. Horri dagokionez, bere kezka partekatu du, batzuetan, telebistako albisteetan, hegoaldeko herrialdeetako testuinguruetan edo gatazka humanitarioetan ematen den tratamenduarekin loturik, eta adierazi du oso garrantzitsua izango litzatekeela begirada positiboa izatea, EpTS ikuspegitik.

Beste galderarik ez dagoenez, multzoan bozkatu dira proposamen guztiak eta aho batez onartu da.

4. Galde-eskeak

Jose Antonio Rodríguez Ranz sailburuordeak bildutakoei eskerrak eman dizkie etortzeagatik, eta hurrengo kontseilu errektorea uztailean izango dela adierazi du, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektuaren azken testua aurkezteko. Paul Ortegak adierazi du Ekintza Humanitarioko proiektuak ere aurkeztuko direla kontseilu horretan.

Beste gairik proposatu ez denez, bilkura amaitutzat eman da 12:56an. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazi da.

OE. Jose Antonio Rodríguez Ranz jauna,
Giza Eskubide, Memoria eta
Lankidetzarako sailburuordea

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
eLankidetzako zuzendaria